

Euskararen mapa, 1981 - 2006

Eusko Jaurlaritzak zabaldu berria du IV. mapa soziolinguistikoa, euskararen egoera aztertzen duena Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Zinez Unescok agertu zuen arriskuan dauden hizkuntzen atlasa baino atseginago da. Bi geografia mapa ageri dira, bat 1981ekoa, bestea 2006koa. Udalerri bakoitzak kolore bat badu euskalduntasunaren arabera : gorritz euskaldunak %80 eta gehiago direlarik ; horiz euskaldunak %80 eta %50 artean ; berdez %50 eta %20 artean ; urdin argiz euskaldunak %20 edo guttiago direlarik. Ohargarri da 1981tik 2006ra gune ilunak berdintsu daudela baina gune argienak desagertu direla (ikus www.euskara.euskadi.net).

Inkestaren iturria da bost urtetarik egiten den errolda, hizkuntza gaitasuna erakusten duena 5 urte eta gehiagoko herritarrengan. Erroldak emaitza interesgarriak eskaintzen ditu jendetzaren aldaketaz, euskararen garapenaz herrialdeetan eta adinaren arabera, euskararen erabileraz.

EAEko jendetza

1981ean, EAEn baziren 2.141.809 biztanle, 5 urte eta gehiagokoak 1.969.038. 2006an, EAEn baziren 2.129.809 biztanle, 5 urte eta gehiagokoak 2.016.257.

Adin piramidoa zuzena zen 1981ean, adinarte gazteenak ugariena zirelarik. 2006ko grafikoak onddo baten itxura du. Adinarte ugariena 75 urte eta goragokoena da, adinarte gazteenak ahulenak direlarik.

Halere orokorki, jendetza berdintsu dago. Sorkuntzaren gainbehera, atzerriko etorkinen kopuru harrigarriak estaltzen du : EAEn 1998an baziren 15.000 etorkin, jendetzaren %0,7 ; 2006an kasik 100.000 dira jendetzaren %4,6a, bainan %10 adinarte ertainetan 20-40 urtekoetan. Alabaina atzeritarren erdiak hurbil latino-amerikarrak dira, eta gazteleradunak, guraso elebakarren kopurua handitzen baitu.

Hizkuntza gaitasuna herrialdeka

EAEn euskaldunen kopurua harrigarri handitu da 25 urtez. 431.220 ziren 1981ean; 755.640 dira 2006an. Beraz 324.000 euskaldunen garapena, proportzioa %22tik %37,5ra goratu delarik epe berean. Elebidun hartzaileen ehunekoa 12tik 17ra igan da.

Euskadunen araberrako aitzinamendua herrialde erdaldunenetan gertatu da : %4tik %25ra Araban (6tan gehiago) ; %15tik %31ra Bizkaian (bikoiztuz) ; %40tik %53ra Gipuzkoaa. Hurrenez hurren 62.600,171.900 eta 89.300 euskaldun gehiago.

Ondorioz 1981ean erdaldunak gegiengoan ziren orotan salbu Guipuzkoa. Aldiz, 2006an orotan guttiago edo berdintsu orotan salbu Araban. Hor ageri da 1982ko Euskarren legearen eragina, bai eta ere 1999ko Euskara biziberritzeko plan nagusiak sustatu zuen hizkuntza politikarena, gorai patuz euskalgintzaren kartsutasuna eta herritarrek beren hizkuntzaz duten atxikimendua.

Hizkuntza gaitasuna herrialdeka %

<i>Herrialdeak</i>	Jendetza	Euskaldun	Elebidun hartzaile	Erdaldun
Araba 1981	235.134	% 4	% 8	% 88
Araba 2006	289.526	% 25	% 18	% 57
Bizkaia 1981	1.094.197	% 15	% 12	% 73
Bizkaia 2006	1.079.458	% 31	% 18	% 51
Gipuzkoa 1981	639.707	% 40	% 15	% 45
Gipuzkoa 2006	647.273	% 53	% 16	% 31
EAE 1981	1.969.038	% 22	% 12	% 66
EAE 2006	2.016.257	% 38	% 17	% 45

Iturria : IV.mapa soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza,2009.

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

Bost adinarte hautatu ditugu jendetza osoaren argazki zuzena emateko. Adinarte bakoitzarentzat eman ditugu erdiguneko sorturtea, jende kopurua, euskaldunen, elebidun hartzaileen eta erdaldunen ehunekoak.

Euskaldunak, elebidun hartzaileak eta erdaldunak adinaren arabera %

Adinarteak	65 et +	50-54	35-39	20-24	5-9
1981					
Sorturtea +/-	1909	1929	1944	1959	1974
Jendetza	59.071	118.142	122.080	157.523	177.213
Euskaldunak	33 %	24 %	19 %	19 %	20 %
Kasik-euskaldunak	5 %	7 %	10 %	15 %	19 %
Erdaldunak	62 %	69 %	71 %	66 %	61 %
2006					
Sorturtea +/-	1934	1954	1969	1984	1999
Jendetza	161.300	131.056	161.300	112.910	80.650
Euskaldunak	26 %	24 %	33 %	60 %	73 %
Kasik-euskaldunak	7 %	14 %	25 %	22 %	17 %
Erdaldunak	67 %	62 %	42 %	18 %	10 %

Iturria : IV.mapa soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza,2009.

1981ean, demografiak piramidoaren itxura dauka, adinarte gazteagoak ugariagoak direlarik. Aldiz zaharrak dira euskaldunenak.

2006an, alderantzizko emaitzak agertzen dira. Adinarte gazteenak dira ahulenak, baina heien euskalduntasuna harrigarri aitzinatu da. Bakarrik %10 erdaldun 5-9 urtekoetan. Laster adinarte osoki euskaldunak ikusiko ditugu.

Hizkuntzen erabilera familian

Euskaldunetan familiako hizkuntza jokabidea berdintsua da 1981ean eta 2006an. Erabiltzen dute :

- euskara nagusiki %35ek ;
- euskara eta gaztelania %18k ;
- gaztelania nagusiki %47k.

Aldiz ezberdintasun nabariak ikusten dira zona soziolinguistikoan arabera. Euskaldunak %80 edo gehiago diren guneeetan, %72k euskara derabilte familian ; euskaldunak %50 edo gehiago diren guneeetan, %55ek euskara derabilte familian ; %50 edo guttiago direlarik familiako erabilera %18ra jausten da. Euskaldun berri gehienak hiriguneetan bizi dira, non ere gaztelania nagusi baita.

Euskararen erabilera lehen hizkuntzaren arabera %

Familian erabili hizkuntza	Euskara nagusiki	Euskara eta gaztelania	Gaztelania nagusiki
Jatorrizko euskaldunak	% 64	% 26	% 10
Jatorrizko elebidunak	% 31	% 37	% 32
Euskaldun berriak	% 2	% 9	% 89
Bastaz beste	% 35	% 18	% 47

Iturria : IV.mapa soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak, 2009.

Begirada orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko 755.640 euskaldunei gehitzen badiegu Nafarroako 60.000 euskaldunak eta Ipar Euskal Herriko 58.000k, Euskal Herri osoan 873.000 euskaldun gara 4 urtez gorakoak. "Euskarak historian inoiz izan duen elebidun kopuru handiena", Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren hitzetan.

Erramun Bachoc, 2009-05-16.